

Zinismo hiltzaileak, euskararen herriari eraso

Zerbait baldin bazen behar ez genuena, hau zen. Zerbait baldin bazen euskarak behar ez zuena, inork Ignacio nahiz beste inor hiltzea zen. Zerbait behar ez bagenuen euskaltzale demokratok, ankerkeriaren gaurko hatzaparkada zen.

Baina hemen dugu, berriz ere, hiltzaileen setakeria. Eta, hiltzaileek hala nahita, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko prestatzen ari ginen unean iritsi zaigu. Baina guk, minduratik haratago, erresuminduraz gaindi, irakurri behar dugu hiltzaileen lerro odoleztatuetan datorkigun mezua: ez zaituztegu bizitzen utziko, ez zaituztegu ez euskararen herririk ez euskal gizarterik osatzen utziko, gure esanaren morroi bihurtzen ez bazarete. Hori da, ez besterik, bortizkerian baizik bizitzen ez dakitenek esaten digutena.

Eta mezua irakurri behar dugu, hain zuzen ere, zentzuz erantzun behar diogulako zentzugabekeriari. Nazka-nazka eginda gaude, bai, baina nazka hori hoztasun demokratiko bilakatu behar dugu. Aspertuta gaude, nola ez, baina gure gizartea balio demokratikoen inguruan kohesionatzeko indar berria atera behar dugu geure herritar senetik. Triste gaude, zeharo, baina inola ere ez etsita. Hiltzaileen basakeriak ezin digulako zuzen pentsatzeko ahalmena ahuldu. Ezin diegulako gure itsumena oparitu.

Euskal gizarte eleanitz baten helburuarekin euskara biziberritzearen alde lanean ari garenok ongi asko baitakigu adostasuna dela bidea, eta ez bateko zein besteko indarkeria. Ongi baitakigu zenbateko lan eta ahalegina eskatzen duen eraikitzeak, eta zein tragikoki erraza den zernahi birrintzea. Ongi baitakigu ez dela inor sobra euskararen herrian, gizartean bizitzeko ezinbestekoak diren balio etiko-politikoak bereganatzeko kultura zibil nahikoa ez duena izan ezik.

Eta garbi baldin badago hiltzaileek nahi dutena, are garbiago egon behar du euskal herritar gehien-gehienok nahi duguna: joan daitezela hiltzaileak historiaren zabortegean propio gorderik duten tokian betiko deuseztera.

Hiltzaileek ez baitute ahanztura beste etorkizunik.

Bitartean, ez diezaiegun utzi hiltzaileei gure eguneroko jardun demokratikoa hain berezkoa duten zinismo hiltzaileaz zikintzen. Bizitza eta hurkoarekiko errespetua direlako demokraziaz hitz egiteko zilegitasunaren abiapuntu bakarra.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduak 3